

Antxinako Erregimena (XVI.-XX. gizaldiak)

Antxinako erregimenean anditu egin zan uriak zerealen ornidureagaz (garia eta artoagaz batez be) eukan menpekotasuna eta, ondorioz, abeltzaintzako eta basoko lurak lubarritu ebezan arren, garau inportatzaile biurtu zan.

XVII. gizalditik aurrera artoa sartu eben apurka-apurka eta, orrek aldaketa ikaragarria eragin eban Bermeoko nekazaritzan zein Euskal Eri atlantiar osoan. Ereindako unidateko artoak ekoizgarritasun andiagoa eukan eta, orrek, asiera batean beintzat, gizarte mai-larik beerenekoen zereale bearrizanak asetu ebazan. Artotzak zabaldu egin ziran apurka-apurka, eta gaztainearen besteko garrantzia artu eben. Au da, ordura artean bizilagunen oinarrizko elikagaia zanaren besteko garrantzia. XVII. gizaldiaren amaiera aldean erri-lurak gitxitu eta lurak zatitu eta esitu egin ebezan eta, ondorioz, ainbat gizarte gataska egon ziran. Izan be, bitarteko gitxi eukiezan bizilagunak basoak emoten ebazan baliabide barik itxi ebezan eta, agaitik, erritarrek ainbat eta ainbat lur pribau inbadidu ebezan janaria lortzeko.

Egoera latzean itxi ebezan basoak bai laborantzako lurak geitzeko lubarriek, bai burdinolen egur eta ikatz eskaera gero eta andiagoak eta bai ontzigintzarako egur bearrizanak. Gainera, egoereak txarrera egin eban denporeak aurrera egin aala. Antxina ugariak ziran baliabideak eiza, frutuak, bedartzak, idetzak, ziritzak, zumetzak eta kalamuak, desagertu egin ziran nekazaritzaren eta uriko industriaren aurrerakuntza etenik bakoaren eraginez. Izan be, industriak egurra bear eban ainbat eta ainbat erabileratarako erregai legez: ogi-labeak, arrain eskabetxeak, kandelak egiteko arrain eta animalia koipeen urtzapena, galipot-labeak eta bai etxeetarako be. Berezko baso baliabideen urritasun a zala-eta, pribilegio batzuk ipini bear izan ebezan, au da, Bermeoko portua zergarik barik orniduten eben egurrez eta su-egurrez.

Maastiek garrantzi andia artu eben udalerrri osoan. Maastigintzea estu-estu lotuta egoan lurraren ganeko errentari atxikita egoan eta andikien pribilegioen aide egoan nobleen elite bateri. Maasti areek etxarte eta orubeetatik mendialdeetaraino eltzen ziran. Zabala y Otxamiz Tremoiak 1618an argitara emon ebanez, "mahatsondoak Talaiako, Ataldeko, Ormabarrietako, Portuburuko eta beste ainbat lekutako mendialde eguzkitsuetan ipinten ebezan. Eta etekinari jagokonez Zubiaur, San Pelaio, Almike eta Demiku auzoetakoak nabarmendu bear dira".

Ain ugariak ziran maatsondoak udalerrrian, ze etheen inguruetakoko gurdi-bideak be, kare eta kantuzko eta egurrezko zutabeen bidez, maastiak eusteko erabilten ebezan. Pergola itxurako egitura orreek

desagertuta dagoz udalerrian, baina alboko udalerrri batzuetan ikusi daitekez, esate baterako, Busturian, Foruan eta Arteagan.

Alanda be, Antxinako Erregimeneko paisajeen landazabal atlantiarra zan nagusi aldatsik gitxieneko lekuetan, eta mendialderik eguzkitsuenetan eta ondoen drainaturikoetan, barriz, maastiak ziran azpimarragarrienak. Landaketak 400 metroko kotaraino bitartean zabaltzen ziran eta artotzak, garitzak baino ugariagoak ziran. Burgoko, Garbolako eta Sollubeko mendialdeetan, osterak, zelaiak, basotxo mistoak eta aretziak ziran nagusi. Dana dala, arestiak gero eta urriagoak ziran, izan be, ontzigintzarako eta ikazgintzarako aretx asko bear izaten zan. Ondorioz, baso-larregintzan oinarrituriko abeltzaintzea eraldatu egin zan, eta mendialdeetako zein kortabasoetako zelaietan abere-txabola estentsiboak ipini ebezan.

Antxinako Erregimenean eta batez be XIX. gizaldiaren leenengo erdian Gipuzkoako eta Nafarroako artzain XIX asko etorri ziran Sollubeko mendialdeetara. Artzainok bedartza gitxi eukiezan euren lurretan eta, ondorioz, andik joan egin bearra izan eben, ganadu eta guzti. Artzain areetako askok eta askok baserriak eregi ebezan eta betiko geratu ziran Sollubeko eta Mañu auzoko mendialdeetan.

Aro Garaikidea, Bermeo XX. gizaldian

Bermeon arrantzeak gizaldien joanean euki dauen garrantziak baserritarrak be itsasora eroan ebazan. Au da, neguko ileetan, bedartzek eta soloek arreta gitxiago bear ebenean, baserritarrak arrantzale biurtzen ziran.

Alanda be, sektoreen arteko osogarritasun ori desagertu egin zan XX. gizaldian, udalerriko sektore ekonomiko bakoitzean espezializazio andiagooa sortu zalako, gaur egunera arte iraun dauen espezializazioa, ain zuzen be.

XX. gizaldiko 50eko amarkadan sartu arte udalerriko baserri paisajearen ezaugarri nagusia zerealaren luze-zabal andiak ziran eta orreen artean artoa; izan be, gari ekoizpenaren bikotxa zan artoarena. Baina fruta arbolak be baegozan eta, orreen artean, gaztainondoa zan nagusi, intxaurren eta sagarrendoaren aurretik. Bermeon txakolin ekoizpen andia egon da, Almike auzoan batez be (udalerriko ekoizpenaren %98), bai ortuari ekoizpen andia be: indabea, babea, patatea, naboak, kipulea, kalabazea, berakatza eta tomatea. Alandaze, bertoko baliabideen ustiakuntzan oinarrituriko autoornidura ekonomia osotzen dabe orreek.

Siketean eta izurriteen ondorioz baserritar batzuk itsasora jo eben diru-sarrerak segurtatzeko eta, ondorioz, espezializazio andiagooa lortu zan. Izan be, abeltzaintzeak loraldi antzeko bat izan eban orduan eta

mendia okupau eban. Artalde ugari egoan udalerriko arlorik altuenetan (Sollube-Garbola-Burgo mendikatean), eta 1858. urtean 10.400 ardiburu egozan eta abelburuei jagokenez, barriz, 1964an 8.200 bururaino eldu zan aziendea. Alanda be, ganadu aziendearen osakereak berak gorabeera andiak izan ebazan aro garaikidean, bai osakeran bai abelburu kopuruan.

XX. gizaldiaren erdi ingurutik aurrera udalerraren oraintsuko historiako paisaje aldaketarik andiena jazo zan, Euskal Erriko eremu atlantiarreko ganerako udalerrri danetan jazo zan legez. Bizirauteko ekonomian oinarrituta egoanez, baserriak errentagarritasuna galdu eban eta, ondorioz, ainbat baserritar bearlekuetara joan zan bearra 60. garren amarkadan edo, bestela, Bermeoko arrantza-ontzietan sartu zan. Orduantxe izan zan baserritarren exodoa, baserri inguruetakoko bizilagunak errigunera joan ziralako bizitzera.

Irakurlea: Elena Aurtenetxe, Bermeo